





ARRASATEKO UDALA

Bizkaiko Urtxintza
Eskola

 Arrasateko
Anetxakoleta
INSTITUTUA


 13. alea
2004-Otsaila

 HEZKIDETZAN
Pausoz pauso

 Paso a paso
En la COEDUCACIÓN


Z TUE

GAZTENAHASTE



Merkealdiak Merkealdiak!!!

**Iritsi berri da azken azkena!!! Punta puntako neska,
txundituta utziko zaituen ikaragarrizko formak
nabarmentzen zaizkion edertasunak!**

Nahi duzunerako hor izango duzun artista!

Leku guztietara iritsiko den makina!

Eta zurekin beti umoretsu egongo den lore atsegina!

**Ez ezazu aukera paregabe hau galdu! Etor zaitetz Errobi pasealekuan dagoen
moda dendara eta zuk zeuk momentuan zure gustokoa den neska panpoxa bat
aukeratzeko aukera ezin hobea izango duzu!!!**



Egin ezazu iragarri honen hausnarketa txiki bat eta ondorioztatzen duzun hori komenta ezazu.

Reflexiona sobre este anuncio y comenta la conclusion que hayas sacado de ella

Jarraian irakurriko dituzun bi kasu hauek ematen al dira gure egunerokotasunean? Normaltasunez hartzen ditugu horrelako kasuak edo hauen inguruan ez adostasunik somatzen dugu? Zein da zure iritzia?




Hamahiru urteko alabarekin gero eta eztabaida handiagoak ditudala gehiegi jaten duelako. Argi eta garbi esten diot ez badu bere gorputza zaintzen ez duela inork maitatuko, gizonezkoak horrelakoak baitira. Are gehiago, orain ez loditzeko behar bezala ez bada zaintzen, gero dieta eta erregimenak egiten pasa beharko du bere bizitza osoa, ni neu bezala.

Nere semearekin, berriz, oso pozik nago, platerean jartzen diodan guzti-guztia jaten didalako, eta egun askotan gehiago eskatzen du. Ez naiz harritzen, eskola dela eta futbola edo solfeoa dela ez da egun osoan gelditzen. Ea horrela jarraitzen duen. Haundia eta sendoa izan behar du, egunen batean *ronaldino* bat izan dadin, edo tailerrean lan egin dezan, edo eraikuntzan bere aita bezala.

Nere kuadrilan bederatzi lagun gara: bost neska eta lau mutil. Gaueko planen bat egin nahi dugunean, beti dugu arazoren bat neskekin, hobeto esanda gure gurasoekin. Anek ezin du berandu arte gelditu, bere gurasoei beldurra ematen die etxera bakarrik joateak eta guri, urruti bizi denez, laguntzea oso gaizki datorkigu. Montsek, lehen arazo berbera zuen, baina orain, mutil batekin dabilenez, bere gurasoek ez diote etxera bueltatzeko ordurik jartzen.

Nere etxean guzti hau normala dela esaten didate, ez dela berdin neska bat edo mutil bat gauez kalean, neskak arrisku gehiago dituela. Hau dela eta, niri nahi dudana arte uzten didate eta nere arreba nagusiari ez.



INUZENTEEN AISIALDIA

Bazen behin, Sonia izeneko neskatxa bat. Ikaragarri gustatzen zitzaion bere itxura zaintzea eta horretarako asteroko jarraipena egiten zuen telebistako iragarki, aldizkariei..

Etxean denak zeuden berataz aspertzen hasiak, ez zuen beste gairik, soilik, kosmetika produktoak, moda, dietak.. bere diru guztia horrelako gauzetan xahutzen zuen. Hau honela izanik, behin bere nebaren enpresan lanpostu bat zegoen betetzeke eta nebak Soniarengan pentsatu zuen eta berehala proposatu zion. Hasiera baten lanpostua onartu zuen.



Eta pentsatu eta egin, bere nebari baiezkoa eman zion. Astelehenean agertu zen enpresan baina hura izan zen sorpresa !!!, mekanikari gisa tailer batetan egin behar zuen lan eta Soniak hura ikustean (olioz zikunduko zen, eskuak latzak geldituko zitzaizkion..) lana utzi zuen, hasi eta probatu aurretik.

Handik irten eta lan bat topatu behar zuela bururatu zitzaion dirua irabaz zezen, eta dendaz denda joan zen eskarian eta azkenean erropa denda batean hasi zen lanean. Irabazten zuen soldataren zati handi bat moda, estetika... lantzen dituzten aldizkariak (Glamour, Mia, Cosmopolitan...) erosten eta bertan

iragartzen zituzten produktuak erosten gastatzen zuen.

Sonia asko arduratzen zen bere irudiaz eta mila mirari bezela saldutako hainbat produktu probatu bazituen ere emaitzik lortu gabe, oraindik ere jarraitzen zuen horretan. Arratsalde batetan dendari lanetan zebilela bezero batek esan zion azken moda titi txikiak edutzea zela. Soniak mila buelta eman zion gaiari eta bereak txikiak ez zirenez, dirua aurreratu eta estetika zentru batera joan zen titiak operatzea.



Operazioa izugarri garestia eta arriskutsua bazen ere, Sonia titietan ebakuntza egitea erabaki zuen. Titiak operatu eta pozik zegoen, orain moda modan zihoan titi lauak jarri baitzizkioten. Handik eta hiru hilabetetara, lanetik irten eta etxera abiatu zen leher eginda. Telebista piztu eta iragarki bat ikusi zuen, hura zoramen!!! Orain moda modakoa titi handiak eramatea zen. Sonia sutan zegoen, denbora oron "Wonder-bra"... iragarkiak zeuden eta orduan asko damutu zen egingdakoaz.



Ordotik aurrera bera zen modukoa onartzea erabaki zuen. Poliki poliki diru pila bat aurreratu zuen, dendako lana utzi eta bere enpresa propioa eratu zuen. Enpresa hau aldizkarietan, telebistan... iragartzen zituzten gezur asko salatzea eta gizarte anitz bat, hau da estereotipoekin bukatzea zuen helburu. Enpresa hau oso ezaguna eta famatua egin zen eta Sonia oso zoriontsu bizi izan zen.

H A U S N A R K E T A R A K O

Zer ondoriozta dezakezu Soniari gertatutakoa ikusi ondoren? Gaur egungo gizartearen errealidadearen baitan kokatzen dela uste duzu?

¿Qué conclusiones has podido sacar después de haber visto lo sucedido a Sonia? ¿Crees qué es una realidad de nuestra sociedad?

Gizartean ditugun arauak era batera edo bestera jokatzeko eskatzen digute. Hori dela eta pertsonaren jokabide edo izaera naturalak ezkutuan edo isilean geratzen dira.

✍ **AHULTASUNEZ JOKATZEN DUEN EMAKUME BAKOITZEKO BERA BENETAN GOGORRA IZAN ARREN, BETI GOGOR ITXURAK EGITEAZ NEKATUTA DAGOEN GIZONEZKO BAT DAGO.**

Por cada mujer que esta cansada de actuar con debilidad aunque se sabe fuerte, hay un hombre que esta cansado de parecer fuerte cuando se siente vulnerable.

✍ **"EMAKUME SENTIKORTZAT" HARTZEA EDO JOTZEAZ NEKATUTA DAGOEN EMAKUME BAKOITZEKO, NEGARRA ETA SENTIBERA IZATEA UKATU DIOTEN GIZONEZKO BAT DAGO.**

Por cada mujer que esta cansada de ser calificada como "hembra emocional" hay un hombre a quien se le ha negado el derecho a llorar y a ser delicado.

✍ **LEHIATZEN DUENEAN "MARI GIZON" BEZALA ETIKETATUTAKO EMAKUME BAKOITZEKO, BERE MASKULINITATEA LEHIAKORTASUNAREN BIDEZ AZALTZEN DUEN GIZONEZKO BAT DAGO.**

Por cada mujer catalogada como poco femenina cuando compete, hay un hombre para quien la competencia es la única forma de demostrar que es masculino.

✍ **OBJETU SEXUALA IZATEAZ NAZKATUTA DAGOEN EMAKUME BAKOITZEKO, BERE AHALMEN SEXUALAZ KEZKATURIK DABILEN GIZONEZKO BAT DAGO.**

Por cada mujer que esta cansada de ser un objeto sexual, hay un hombre preocupado por su potencia sexual.

✍ **BERE SEME-ALABEKIN LOTUTA SENTITZEN DEN EMAKUME BAKOITZEKO, AITATASUNA UKATU ZAION GIZONEZKO BAT DAGO.**

Por cada mujer que se siente atada por sus hijas e hijos, hay un hombre a quien se le ha negado el derecho a la paternidad.